

2,4-dinitrofenolaren (DNP) kontsumoari buruzko oharra

Oharra: argaltzeko dietak egiten ari direnentzat edo kulturistentzat eskura dauden zenbait elikadura-produktuk 2,4-dinitrofenola (DNP) dute. Haren kontsumoak ondorio kaltegarri larriak izan ditu, eta hildakoak ere izan dira zenbait herrialdetan. Hori dela eta, Osasunaren Mundu Erakundeak 2,4-dinitrofenolaren kontsumoari buruzko oharra kaleratu du.

Zer da? substantzia kimiko bat da; tinduak edo zurezko kontserbagarriak egiteko erabiltzen da, edo herbizida gisa ere bai. Hauts hori kristalino bat da, uretan erdi disolbagarria. Ez da medikamentu bat.

Nola merkaturatzen da? Batez ere, internet bidez. DNP-edukia ez da beti aipatzen, ez web-orrialdeetan, ez DNPa izaten duten produktuen etiketetan.

Ez dago Espainian banatu den jakiteko frogarik.

Ondorio kaltegarriak: larruazaleko erupzioak, neuritisa, gastroenteritisa, anorexia, agranulozitosis, neutropenia, kataratak, gorroria eta abar.

Ondorio toxikoak: nahasmendua, agitazioa, konbultsioak, hipertermia, takikardia, izerditzea eta kolapso kardiobaskularra.

Beste izen batzuk: zenbait webgunetan "gantz-erretzaile" ere deitzen zaie produktu horiei.

Gomendioak:

Ez kontsumitu konposizioan 2,4-dinitrofenola duten elikagai-osagarririk edo dietetikorik.

Ez erosi produkturik seguruak ez diren merkaturatze-bideen bidez.

Galdetu zure medikuari zer elikagai-osagarri erabil dezakezun.

Informazio gehiago: <http://aesan.msssi.gob.es/AESAN/web/destacados/dinitrofenol.shtml>